ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 2. zenbakia | 2017ko martxoa

# errenteria
## HERRI BIZIA



# LEKUONA FABRIKA
## elkargunea / espacio de encuentro

Lekuona 3. ORR. >>

Inauteriak 6. ORR. >>

Presupuestos 8. ORR. >>

Igogailuak 12. ORR. >>

Agenda 15. ORR. >>

# KULTURA
## Errenterian 2016an




**25.947**
NIESSEN ARETOAN EGON DIREN IKUSLEAK

**25** ERAKUSKETA

**7.462** BISITARI ERAKUSKETETAN

XENPELAR TAILERRAK **288** IKASLE

ANTZERKI TAILERRAK **83** IKASLE

2017ko URTARRILA-OTSAILEAN **3.135** BISITA kultura.errenteria.eus WEBGUNEAN

ERAGILEEK KALEAN ANTOLATUTAKO JARDUERAK **64**

MADALENETAKO BATZORDEA **48** ERAGILE — % 39,95 emakumeak

INAUTERIETAKO BATZORDEA **19** ERAGILE — % 78,5 emakumeak

SAN TOMAS BATZORDEA **29** ERAGILE — % 41,4 emakumeak



Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 2. zenbakia

*Kreatibitate eta kultur gunea*

# LEKUONA

*Espacio para la creación y la cultura*

*Hace años que la antigua fábrica de Lekuona no produce pan. Sin embargo, cada vez falta menos para que vuelva a la actividad. Lo hará horneando todo tipo de proyectos creativos, que favorecerán la colaboración y el diálogo.*

*Hori guztia sortuko da 3,686 m² erabilgarriei edukia emateko hiabeteotan gauzatuko den prozesu parte-hartzailearen ondorioz. Izan ere, eraikinaren lana izango baita gogoraraztea kultura dela herria elikatzen eta aberasten duen osagai ezinbestekoa.*





Dokk1 liburutegia, Aarhus. Danimarka
Sinadura
Mark Deckers. CC-BY-SA-NC

## Estrategia errealitatera

Lekuona sormen fabrikak bete-betean gorpuzten ditu Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren lerro estrategikoak. Sorkuntzarako eta berrikuntzarako kultur espazio bat izango da, zentzurik zabalenean: zentzu intelektualean, teknologikoan, artistikoan eta zientifikoan. Jendearen beharrei begiratzen dien ekonomia eredu bat du oinarri, ekonomia sortzaile bat, eta Pasaiako Badiaren biziberritzearen markoan kokatzen da. Beraz, herriarentzat ez ezik, guztiz erabilgarria izango da eskualdearentzat ere.

2012koa da Lekuona Fabrikaren hazia. Urte hartan, partehartze prozesu bat egin zen Errenterian, herriaren etorkizuna irudikatzea, eta etorkizun hori nola gauzatu pentsatzeko. Prozesu horren ondorioa da Errenteria 2025 Plan Estrategikoa, egungo errealitatearen eta etorkizuneko Errenteriaren arteko bidea marraztu nahi duena.

*Errenteriari eta bere biztanleei egokituko zaie Lekuona; hau bezalako herri biziak behar baititu topaketarako gune malguak*

Geroztik, herria sorkuntzaren erreferente bihurtzeko apustu garbia egin da. Sorkuntza ezinbesteko balioa baita jendartearen garapenerako, garapen sozioekonomikorako, eta, funtsean, gizarte aurreratu bat lortzeko.



## Economía creativa para el desarrollo de Errenteria

La Organización de las Naciones Unidas (ONU) en sus Objetivos de Desarrollo del Milenio subraya la importancia de la cultura como facilitadora del desarrollo humano sostenible y como motor de la economía. Estos principios son compartidos por la propia Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura (UNESCO). En su informe de 2013, esta institución reconocía al conjunto de las actividades culturales su carácter tractor del desarrollo humano “no solo por su valor económico, sino también por sus beneficios sociales no monetarizados”.

Es en ese contexto donde Lekuona Fabrika toma todo su sentido y demostrará su potencialidad transformadora, ya que está llamada a ser uno de los más importantes motores de la economía creativa de Errenteria, relacionándose con espacios de emprendizaje colaborativo como son Torrekua y Santo Angel de la Guarda, tejiendo así una red con otros edificios culturales del municipio, como el Centro Cultural Niessen, Merkatuzar o la Casa Xenpelar. Juntos, integrarán el conjunto de instalaciones del nuevo proyecto de economía creativa que impulsará el desarrollo humano y económico del municipio.

Con esta red de equipamientos culturales, la villa dará apoyo a la creación, aportando espacios de trabajo para las artes escénicas, la música, las artes plásticas y visuales, las creaciones multimedia, los proyectos relacionados con las tecnologías de la información y la comunicación (TIC), así como, para la artesanía. La creatividad, por tanto, no sólo como expresión artística sino, también, como contribución desde la industria creativa a la revitalización económica. Creatividad en mayúsculas, no en vano, Errenteria posee un ADN Kreaktibo.



Berako Kultur etxea
Sinadura: Asier Gogorza CC-BY-SA

Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 2. zenbakia

## Lekuona Fabrika por dentro

En definitiva, Lekuona Fabrika y los espacios que contempla se construyen basandose en una arquitectura abierta y en la generación de espacios polivalentes que invitan a aprender y a compartir. Compartir experiencias entre gente diferente, entre culturas diferentes y entre generaciones diferentes. Eso es Lekuona, un espacio de encuentro.

***Espacio central.*** Un gran espacio central que podrá utilizarse como una gran sala con un aforo de 700 personas sentadas y 2.400 de pie. Pero también gracias a su versatilidad, polivalencia y arquitectura no permanente permitirá su división para poder contar con espacios más pequeños. De esta manera, este espacio podrá acoger diferentes proyectos y formatos de artes escénicas, música, conferencias y otros.

***Espacios abiertos.*** Lekuona Fabrika contará también con espacios de menor tamaño, adecuados para charlas y demás actividades que requieran un ambiente más cálido, y a su vez, para exposiciones y eventos similares.

***Biblioteca del siglo XXI.*** Una biblioteca que contará con un gran espacio. En ésta, se ofrecerán todos los servicios de un centro de lectura pública y además fomentará la creatividad, el encuentro y el aprendizaje de todas las personas usuarias. Para definir esta biblioteca del siglo XXI, Lekuona seguirá la estela de bibliotecas como UBIK, de la Tabakalera Donostiarra, de la Openbare Bibliotheek de Amsterdam, o de las danesas Dokk1 en Aarhus y la pública de Billund.

Estas bibliotecas se conciben como centros de información y aprendizaje y también como espacios de creación y encuentro. Por esto, además de contar con lugares de lectura, la colección documental y de los servicios habituales de una biblioteca contará también con zonas y actividades que fomenten el encuentro y la creación. En este lugar tendrán gran importancia los espacios destinados a las niñas y a los niños, al fomento del aprendizaje creativo de nuestros mayores y a la oferta de un gran abanico de servicios y laboratorios en el ámbito tecnológico.

***Espacios de encuentro.*** Para relajarse, conversar, aprender, compartir... Lekuona Fabrika tendrá espacios para el encuentro, que seran el nexo entre el propio edificio y el barrio. Entre otros, una cafetería.

# Inauteriak 2017



# 2017 PROIEKTUAK



## Limpieza viaria

**+500.000€**

**al año**

## Gazteentzako etxebizitza komunitarioa

**300.000€**






Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 2. zenbakia

## Casa de las Mujeres y parque Txirrita

**700.000€**





## Fanderiako errota: Ibaiaren Interpretazio Zentroa

**210.000€**



## Kaleen asfaltatzea

**200.000€**

## Casa de cultura y biblioteca de Beraun

**694.000€**







# //udal taldeen mezua//

## EL NUEVO PROYECTO LEKUONA

[PSOE] El grupo socialista considera que este nuevo proyecto responde al interés general del conjunto de la ciudadanía y esperamos que sea un espacio de consenso donde puedan participar todas las sensibilidades políticas y el conjunto de las entidades de la Villa.
Será un espacio local para la creación intelectual en todas las disciplinas que incorporará una moderna biblioteca, salas multiusos y un auditorio, permitiendo que la intensa actividad y vida cultural y social de Errenteria tengan un marco de referencia comarcal y un estupendo espacio para compartirlo con toda la ciudadanía.
Hemos trabajado intensamente en beneficio de Errenteria y estamos dispuestos a contribuir para que este nuevo proyecto vea la luz cuanto antes y situarlo en la vanguardia de los equipamientos culturales existentes.

## ERRENTERIA-RREN ZERBITZURA

[EAJ] Maiz iruditzen zaigu, behin bozkatuta dena egina dagoela, gobernuan daudenek dutela bere eskuetan herriaren etorkizuna eta oposizioak ezer gutxi egin dezakeela. Neurri batean hala izan daitekeen arren, oposizioan gaudenok ere badugu gure egitekoa, herritarren ordezkari hautatu gintuzten, eta erabakimenik izan ez arren, herritarren ahotsa Udalean entzunaraztea eta hauen beharrei erantzun ematea, gure lana ere bada. Horregatik saiatzen gara beti errenteriarrei entzuten, kanal desberdinak zabalik edukita eta baita elkarte eta eragileekin bilerak eginda. Baina lerro hauen bidez animatu nahi zaituztegu zuen kezka edo iradokizunak gurekin partekatzera. Contacta con nosotros por email (zure.errenteria@gmail.com), por facebook (@zure.errenteria) o personalmente, en el Ayuntamiento o en la calle.

## TÚ TAMBIÉN HACES ERRENTERIA

[IrabaziZ] Errenteria IrabaziZ-etik egungo Udalak, bizilagunentzat erabilgarriagoa eta gertukoagoa bilakatzearekiko esfortzu handia egiten duela pentsatzen dugu.Kalitatezko gizarte zerbitzuak, kultura nortasun seinale izanez, auzoen sentipen eta beharrak entzuten eta erantzuten,eta ingurumenarekiko errespetuko herri bat eraikitzen ari gara.
Pero todo esto necesita de tu colaboración y aportación. En Errenteria IrabaziZ nos interesa y mucho todo lo que nos tengas que decir para avanzar en una Errenteria mejor. Por eso invitarte a llamarnos al 661833961 o bien ponte en contacto mediante email irabaziz@errenteria.eus.

## LEKUONA, PROIEKTUA MARTXAN

[EH Bildu] Orereta/Errenteriako garapen sozioekonomikorako hain garrantzitsua den Lekuona Fabrika errealitate ari da bihurtzen. Ekonomia kreatiboa identifikatu genuen herriaren garapenerako eta ekonomia eredu sozial bateranzko trantsizioari ateak irekitzeko giltza gisa. Herri aurreratuenek ere bide honetatik jo baitute langabezia eta per capita errentaren datu kezkagarriei erantzuna emateko saiakeran.

Hori bidea, orain definizioa. Etorkizuneko proiektu hau herritarrek eta eragileek erabakiko dugu. Definizio horretan kultura denontzat modu libre eta eskuragarrian jartzea funtsezkoa izango da, herritar orok izan dezan kulturaz gozatzeko eskubidea. Horregatik herriko eragileak animatu nahi ditugu proiektu honen eraketan parte hartzera. Herri osoari baitagokio Lekuona garatu eta martxan jartzea.

# ERRENTERIA DENON ESKURA

## *ERRENTERIA PARA SUS HABITANTES*



*Herritarron bataz-besteko adina gora doa. Dela horregatik, dela bizi diren zonaldeagatik edo bestelako traba fisikoengatik, asko dira hirian hara eta hona mugitzeko zailtasunak dituztenak. Zer esanik ez, hiriak aldapaz eta eskaileraz josita badaude. Denontzat da ezinbestekoa mugikortasuna zaindu eta herritarroi erraztasunak jarriko dizkien herria eraikitzea. Horretarako, hiri askotan bezala, Errenterian ere gero eta gehiago dira igogailu publikoak. Ez alferrik: tresna bikaina dira laguntza gehien behar dutenei hiri osora iristen laguntzeko eta beste guztiokin berdintzeko, milaka herritarren bizitza errazteko, eta oro har, gure herriko txoko guztiak denontzat eskuragarri egiteko.*



Errenteria 2025 Plan Estrategikoak herri irisgarri eta oztopo arkitektonikorik gabeko herriaren alde egiten zuen apustua. Horretarako Irisgarritasun Planaren Zabalkundea onartu eta gora egin du igogailu publikoen kopuruak. Planaren baitan, denera hiru berri eraiki dira: bi Kaputxinoak auzoan eta bestea Agustinak auzoan, R.M. Azkue eta Markola Etorbidea lotzen dituena. Horretaz gain aurten martxan jarriko diren beste bi igogailu ari dira egiten Alaberga auzoan, Kaputxinoak-Erdigunea ardatza lotzea lortuko delarik.

Azken bi legegintzaldi hauetan martxan jarritako horiekin, denera 10 dira Errenteriako igogailu publikoak. Fanderiakoak, Kaputxinosen lehendik ere bazenak, Topoa eta kiroldegia Galtzaraborda eta Beraunekin lotzen ditzutenak osatzen dute zerrenda.

Igogailuak herriaren ondarea dira eta erabilpen handia dute. Jarritako neurgailuek adierazten dute gutxien erabiltzen denak 15.000 desplazamentu izaten dituela hilabetean eta gehien dituenak 40.000 baina gehiago. Honek ematen digu igogailu hauen benetako balioa, bere erabilpen balioa alegia. Balio sozial hau dela eta jarri ditu udalak beraiek babesteko hainbat neurri martxan: kamarak, gauez ixtea, eta beste neurri batzuk ere lantzen ari da.

Egindako lanari esker, goiko aldeko auzoetan bizi direnen herritarren bizi-baldintzak hobetzen ari dira: batetik, erdialdearekin hobeto daude komunikatuta, eta bestetik, oinezkoen eta bizikleten ibilbide aukerak biderkatzen dira. Gainera, lan guztietan ahalegin berezia egiten da erdibideko geltokiak ere jarri eta zonalde bakoitzeko etxebizitzen eskuragarritasuna hobetzeko.

*Los ascensores públicos llegarán a ser ocho con los seis puestos en marcha entre 2011 y 2018*

## Igogailuak / Ascensores

| | BATZEN DITU: UNE: | MARTXAN NOIZTIK: EN SERVICIO DESDE | KOSTUA COSTE | MUGIMENDUAK MOVIMIENTOS |
|---|---|---|---|---|
| FANDERIA | Fanderia - Agustinak | 2006 | 298.000€ | - |
| AGUSTINAK | Resurección M.ª de Azkue - Markola | 2012 | 263.000€ | 15.346 |
| KAPUTXINOAK | Sorgintxulo - Basanoaga | 2007 | 289.799€ | 17.267 |
| | Basanoaga - Telefonica | 2013 | 646.000€ | 16.725 |
| ALABERGA | Alaberga | 2017 | 1.684.000€ | - |
| GALTZARABORDA | Apeadero kalea - Parke kalea | 2011 | 675.153€ | 40.152 |
| | Parke kalea - Urbaburu | 2012 | 1.410.000€ | 35.141 |
| | Urdaburu kalea - igerilekuak eta anbulategia / piscinas y ambulatorio | 2018 | 600.000€ | - |





## Galtzaraborda, más cerca

Más que un elemento que sube y baja, un ascensor es un puente, una manera de unir a las personas y facilitarles moverse entre lugares a diferentes alturas. Para evitar que la diferencia de cota dentro de Alaberga dificulte los movimientos de la ciudadanía, el Ayuntamiento destinará un total de 1.684.000 euros a la construcción de un nuevo elevador doble, y se espera que entren en funcionamiento a finales de año.

Galtzaraborda también se beneficiará de un nuevo ascensor. Cuando las obras finalicen en 2018 se podrá acceder a las piscinas y al ambulatorio sin depender del vehículo propio ni tener que subir las cuestas andando. Es decir, no solo se falicitan los trayectos, sino que también se fomentan los desplazamientos a pie.

# //agenda//

*martxoak 25*
### IX. Lore eta Landare Ornamentalen Azoka
*9:00-14:00 | Xabier Olaskoaga Plaza*
Antolatzailea: Errenteriako Udala / Behemendi L.G.E. / deKOLORE Elkartea

*martxoak 31*
### Gu
*18:00 | Niessen Kulturgunea*
Zer?: Borobil teatroaren antzerki emanaldia haurrentzat.
Sarrera: 3 euro
Antolatzailea: Errenteriako Udala, Kultura Kreaktiboa

*apirilak 2*
### Barro rojo
*19:00 | Niessen Kulturgunea*
Antolatzailea: Errenteriako Udala
Zer?: Javier Liñeraren antzerki emanaldia.
Sarrera: 8 euro
Antolatzailea: Errenteriako Udala, Kultura Kreaktiboa

*apirilak 4*
### Korrika
*12:11*
Zer?: Martxoaren 31n, Korrika Txiki eta Gaztea. Apirilaren 1ean, festa nagusia.
Sarrera: 3 euro
Antolatzailea: AEK

*apirilak 7-9*
### Apirileko feria
*18:30 | Zumardia*
Antolatzailea: Concha Rociera

*apirilak 23*
### San Marko Eguna
*Egun osoan zehar | San Marko Gotorlekua*
Zer?: San Marko igoera, erromeria, haur jolasak, azoka...
Antolatzailea: Errenteriako Udala eta herriko hainbat eragile

*apirilak 28*
### En mi casa infinita
*18:00 | Niessen Kulturgunea*
Zer?: Larumbe danzaren dantza ikuskizuna haurrentzat.
Sarrera: 3 euro
Antolatzailea: Errenteriako Udala, Kultura Kreaktiboa

*apirilak 29*
### Sagardo Eguna
*Egun osoan zehar | Erdigunea*
Antolatzailea: Herriko hainbat elkarte

*maiatzak 1*
### Dantzari Txiki Eguna
*Egun osoan zehar | Erdigunea*
Antolatzailea: Ereintza Elkartea

*maiatzak 12, 13, 14*
### Igantziko jaiak
*11:00 | Herriko kaleetan zehar*
Antolatzailea: Igantziko Auzo Elkartea

*maiatzak 13, 14, 15*
### Zamalbideko jaiak
Zer?: San Isidro jaiak
Antolatzailea: Zamalbideko Auzo Elkartea

*maiatzak 19-27*
### Musikaste
Zer?: Euskal musikaren astea
Antolatzailea: Eresbil

*maiatzak 21*
### Emakumeen bira
Zer?: Emakumezko kirolari federatuen txirrindularitza proba
Antolatzailea: Errenteriako Udala

*maiatzean zehar*
### Dantzarte zikloa
*18:30 | Madalena basilika*
Antolatzailea: Errenteriako Udala, Kultura Kreaktiboa

# autobus urbanoak U11, U22 eta U 44

## U11 GALTZARABORDA - BERAUN - KAPUTXINOAK

Morrongilletatik irteerak *Salidas de Morrongilleta*

| Astelehenetik ostiralera<br>*de lunes a viernes* | Larunbatetan<br>*Sábados* | Igande eta jaiegunetan<br>*Domingos y festivos* |
|---|---|---|
| 08:00, 08:30, 09:00, 09:30, 10:00, 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30, 13:00, 13:30, 14:00, 14:30, 15:00, 15:30, 16:00, 16:30, 17:00, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:00, 20:30, 21:00, 21:15, 21:30, 21:50, 22:10. | 08:30, 09:10, 09:30, 10:10, 10:30, 11:10, 11:30, 12:10, 12:30, 13:10, 13:30, 14:10, 14:30, 16:10, 16:30, 16:50, 17:10, 17:30, 17:50, 18:10, 18:30, 18:50, 19:10, 19:30, 19:50, 20:10, 20:30, 20:50, 21:10, 21:30, 21:50, 22:10. | 10:50, 11:10, 11:30, 11:50, 12:30, 12:50, 13:10, 13:30, 13:50, 14:10, 17:10, 17:30, 17:50, 18:10, 18:30, 18:50, 19:10, 19:30, 19:50, 20:10, 20:30, 20:50, 21:10, 21:30, 21:50, 22:10. |

## U22 GALTZARABORDA - BERAUN - KAPUTXINOAK - NAFARROA ETORB. - FANDERIA - LARTZABAL

| Astelehenetik ostiralera<br>*de lunes a viernes* | Larunbatetan<br>*Sábados* | Igande eta jaiegunetan<br>*Domingos y festivos* |
|---|---|---|
| Morrongilletatik irteerak<br>*Salidas de Morrongilleta*<br>07:45, 08:15, 08:45, 09:15, 09:45, 10:15, 10:45, 11:15, 11:45, 12:15, 12:45, 13:15, 13:45, 14:15, 14:45, 15:15, 15:45, 16:15, 16:45, 17:15, 17:45, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:15, 20:45. | Morrongilletatik irteerak<br>*Salidas de Morrongilleta*<br>08:50, 09:50, 10:50, 11:50, 12:50, 13:50. | Ez dago zerbitzurik. |
| Lartzabal anbulatoriotik irteerak<br>*Salidas de Lartzabal ambulatorio*<br>08:05, 08:35, 09:05, 09:35, 10:05, 10:35, 11:05, 11:35, 12:05, 12:35, 13:05, 13:35, 14:05, 14:35, 15:05, 15:35, 16:05, 16:35, 17:05, 17:35, 18:05, 18:35, 19:05, 19:35, 20:05, 20:35. | Lartzabal anbulatoriotik irteerak<br>*Salidas de Lartzabal ambulatorio*<br>09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05 | |

## U44 GALTZARABORDA - BERAUN - TXIRRITA MALEO - MASTI LOIDI

| Morrongilletatik irteerak<br>*Salidas de Morrongilleta* |
|---|
| Astelehenetik ostiralera lanegunetan abuztuan izan ezik<br>*de lunes a viernes laborables excepto agosto*<br>07:30 |

u5, u6, u7 eta u33aren ordutegiak hurrengo alean *los horarios del u5, u6, u7 y u33 en el próximo número.*

---

## *Zure iritzia eman nahi duzu?*

## *¿Quieres proponer contenido para la revista?*

Izena Nombre ______________________ Telefonoa Teléfono ____________

Posta elektronikoa Dirección electrónica ______________________

Iradokizuna edo eskaera
Sugerencia o petición ______________________

______________________

______________________

herribizia.errenteria.eus

HERRI BIZIA
*etorkizunaren bidean*